

4. IRABAZI ITURRIAK

Gure enpresak, irabazi-iturriak, ordainketa bakarraren bidezko sarreraren bitartez lortuko ditu. Aktiboen salmentan bitartez izango da enpresaren diru iturri naguesiena. Hau da, erloju eta bere osagarrien salmenten bitartez. Prezio finkoaren kasuan : 120-150€ bitartekoa izango da eta data bereziak egongo dira. Beherapenei esker, aukera izango dute produktua merkeago eskuratzeko: Adibidez; Emakumeen egunean, %20; Black Friday, %10-%15-%20; 2X1 osagarrietan beherapenak, %15; Web gunean erostean puntu batzuk lortu...

Bestetik, harpidetzaren bitartez, puntuak lortu ahal izango ditu bezeroak erosketa bakoitzean eta puntu horiekin beste produktu bat erosi dezake gure online dendan. Azkenik, Eusko Jaurlaritzak dituen Ekintzailentzako diru-laguntzak lortzen saiatuko gara, bestelako diru iturri gisa.